



GARDENTASUN TXOSTENA 2025

 **FARAPI** KOOP.

TXOSTEN HONETAN TOPATUKO DUZUNA:

- Izaera
- Proiektuak
- Ezagutza
- Kontuak
- Hornitzaileak
- Sareak
- Erronkak

2025. urtea ikaskuntzaz betetako urtea izan da guretzat, proiektuaren bideragarritasunaren eta bizigarritasunaren arteko oreka etengabe bilatzen jarraitu dugun urte bat.

2024an bizi izan genuen erronka ekonomikoaren ondoren, 2025ean neurriak garaiz hartzea erabaki genuen, egoerak aurrera ez egiteko eta aurreko urteko galerek etorkizuna baldintza ez zezaten. Zorionez, hartutako neurriek emaitza eman dute, eta urtea ekonomikoki ondo ixtea lortu dugu.

Esperientzia horrek talde gisa indartu gaitu, berriro ere erakutsi digulako denok norabide berean arraunean ari garela, baita marea zakartzen denean ere.

Urtean zehar proiektu ederrei bultzada eman diegu, eta hausnarketa estrategikotik sortutako lan-ildo berriei ekin diegu. Aldi berean, proiektuaren, taldearen, norbanakoen eta gure ingurune sozial eta naturalaren arteko oreka zaintzen jarraitzen dugu. Ez da beti bide erraza, baina egiten dugun horretan sinesteak aurrera egiteko indarra ematen digu.

Gardentasun txosten honen bidez, gure urtearen barrenera gonbidatu nahi zaituztegu: lortutakoa, ikasitakoa eta oraindik erronka direnak zintzotasunez partekatzera.

Ongi etorri gure erraietara.

IZAERA



Enpresa ameslaria da Farapi. Sistema kapitalista patriarkal eta kolonialista baten baitan lan egiten dugun arren, etengabe ari gara eredu berriak ko-sortzeko saiakerak egiten.

Gure izaera zurruna eta aldakorra da aldi berean. Alde batetik, oinarri batzuk negoziatzeko direla uste dugu. Besteak beste, hierarkiarik gabe lan egiten dugu eta produktiboak ez diren lanei aitortza egiten diegu.

Bestetik, ingurura begiratzea gustuko dugu, gure erabakiak berrikusteko eta elkarren artean ikasten eta desikasten jarraitzeko.

Pixkanaka, sistema zapaltzaile eta bortitz honetan alternatibak sortzeko sareak ehuntzen ari gara elkarrekin. Horrenbeste lagun zarete lan nekaezina egiten duzuenak utopia egia bilakatzen saiatzeko!

Eskerrik asko inspirazio izateagatik.

LAN-TALDEA

2025. urtea aldaketa handien urtea izan da lan-taldearentzat ere. Bizitzaren joan-etorriek (amatasunak, etapa berriak eta gure lehen erretiroa!) taldea eraldatu dute, eta horrek gure egunerokoan ere izan du isla. Aurreko urteetan baino mugimendu gehiago izan ditugu, eta horrek taldearen egonkortasunean eragin badu ere, egokitzen eta elkarri eusten ikasten jarraitu dugu.

Urteak mugarri berezi bat ere ekarri digu: gure lehen erretiroa. Une hunkigarria izan da, urte luzez proiektua eraikitzen aritu den kide bati eskerrak emateko eta egindako bidea aitortzeko.

Aldaketa guztien artean, bada bereziki ospatu nahi dugun beste mugarri bat ere: **lehen aldiz, Farapiko langile guztiak kooperatibako bazkide gara.** Urrats garrantzitsua da guretzat, proiektuarekiko konpromisoa sendotzen duelako eta kooperatiba-ereduaren alde egiten dugun apustua indartzen duelako.

Urtean zehar, beraz, aldaketak izan badira ere, taldeak proiektuari eusten jarraitu dio, elkar zainduz eta ardurak partekatuz. Izan ere, gure ustez, kooperatiba baten indarra ez dago pertsona bakoitzaren ezinbestekotasunean, baizik eta ezagutza, ardurak eta konfiantza partekatzeko gaitasunean.





PROIEKTUAK


2025. urtean **81 proiektutan egon gara murgilduta.**

Farapin modu kontzientean erabakitzen dugu zein proiektutan parte hartu nahi dugun. Proposamenak baloratzeko tresna bat sortu dugu, eta horrek gure izaerarekin koherenteak diren irizpideen arabera erabakiak hartzeko aukera ematen digu. Proiektu batean sartu baino lehen, alderdi hauek aztertzen ditugu: bideragarritasuna, motibazioa, kontziliazioa, bizigarritasuna eta beste hainbat.

Gure proiektuak hiru lan-lerrotan sailkatzen ditugu: feminismoa, erakundeen eraldaketa, eta partaidetza eta komunitategintza. Konturatuko zinen bezala, bi lan-lerroren izendapena eguneratu dugu. Alde batetik, ekonomia sozial eraldatzailearen esparrutik harago ere bidelaguntzak egiten ditugu erakundeekin; horregatik, lan-lerro horren izena birpentsatu eta erakundeen eraldaketa izendatzea erabaki dugu. Bestetik, gure proiektuetan partaidetzak askotan komunitategintza, gizarte-kohesioa eta harreman-sareak indartzeko helburua ere badu. Horregatik, partaidetza eta komunitategintza izena egokiagoa iruditu zaigu. Nolanahi ere, sailkapen honek gure lana azaltzen laguntzen badu ere, egunerokoan hiru lan-lerroak etengabe gurutzatzen dira.

Hona hemen 2025. urtean egindako proiektu kopurua, lan-lerrotan sailkatuta:





PROIEKTUAK LAN-LERROKA

Feminismoa

Zaintza:

- Ibarrako zaintza diagnostikoa.
- Lesakako zaintza mahaiaren definiziorako prozesu parte hartzailea.
- Ordiziako zaintza mahaiaren dinamizazioa eta bere plangintza garatzeko prozesua.
- Villabonako zaintza sistemaren herri diagnostikoa.
- Zegamako zaintzak ikusarazteko eta duten balioa aitortzeko prozesua.
- Zestoan zaintza komunitarioa lantzeko prozesua.
- Zumaiako Basadi auzoan zaintzaren egoera ezagutzeko prozesu diagnostiko komunitarioa.

- “Adierazleak sortzen” saioa, **Emaginek** antolatutako zaintza mintegietan.
- Jai feministak:**
- Arama eta Altzagan jaiak feminismora hurbiltzeko hausnarketa saioak.
- Amurrioko festetan berdintasuna lantzeko prozesua.
- Donostiako Ekialdeko Barrutiko jai batzordeekin indarkeria matxistei aurre egiteko lanketa.
- Galdakaon jai feministak eraikitze diagnostikoa eta partaidetza prozesua.
- Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren dinamizazioa.
- Berdintasuna udalerrietan:**
- Hondarribiko emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta plana.
- Soraluzeko III. Berdintasun Planaren ebaluaketa eta IV. plana garatzeko laguntza teknikoa.
- Berdintasuna erakundeetan:**
- Beasaingo Arrano elkarte: Elkartegintza feministarako trebakuntza.
- GGKEetan Ekitatearen Aldeko diagnostiko eta planak osatzeko prozesu parte-hartzaileak: **Emaus fundazioa, Garabide elkarte eta Bitartean Jolasean.**
- Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearen II. Berdintasun Plana eratze bidelaguntza.
- Talleres Mitxelenaen I. Berdintasun Plana gauatzeko prozesua.
- Behaketa feministak:**
- Behaketa feministetan formakuntza eta bidelaguntza **Coop57rekin.**

- Errigora barne-espazioetan behaketa feminista egiteko laguntza teknikoa.
- Donostiako Udaleko Kontseilu Sektorialen berdintasun behaketa.
- Bestelako aholkularitzak:**
- Indarkeria matxisten aurrean eragile feministen arteko ahalduntzea eta saretzea bultzatzeko zerbitzua **Donostiako Ekialdeko Barrutian.**
- Emakunderen diru-laguntzen baitan berdintasunaren aldeko emakume elkarteei eta elkarte feministei laguntza eta aholkularitza.
- GFAko Berdintasunerako Organoaren diru-laguntzen tramitazioan laguntza teknikoa emakume elkarteei eta talde feministei.
- Goierri eta Urola Garaiko tokiko produktuen ekoizpena maximizatzen: Genero eraginari buruzko txostena.
- Zegamako elkarteekin elkarlanean berdintasunaren alde: Hausnarketa eta formakuntza saioak.
- Ordizian prebentziorako sare feminista artikulatzeko bidelaguntza **Kimetz elkartearekin.**
- Lan-saioak “**Oñatiko** emakume sortzaileak” egitasmoan.
- Erakundeen eraldaketa**
- Partaidetza entitateetan:**
- Artaziak kooperatiban parte-hartze praktikak hobetzeko trebakuntza.
- Partaidetza ikuspegiaren eta tresnen ahalduntzerako trebakuntza **Ikastolen Elkarte**an.
- Juntura kooperatiban barne-komunikazioa eta lurraldean duen eragina lantzeko prozesua.
- Zabalduzako bazkide eta partaidetzaren barne kudeaketa prozesua definitzeko lanketa.

- Gogoeta estrategikoak:**
- BDS Koop sarea.
- Tolosaldeko komunikazio taldea.
- Berriak Hernaniko merkatarien elkarte.
- Bestelako prozesuak:**
- AEKren barne-araudia ikuspegi feministatik.
- Aranzadi ikastola: Autoebaluazioaren funtsezko alderdiei buruzko prestakuntza.
- Elhuyar Zientzia Unitatean webgunearen birpentsatzea eta lan-fluxuen egokitzapena.
- Ikastolen Elkarte Zuzendaritza taldearen barne antolaketa
- Partaidetza eta komunitategintza**
- Partaidetza udalerrietan:**
- Antzuolako alardearen inguruan hausnartzeko prozesu kolektiboa.
- Kulturarte elkarbizitza eta harrera prozesua **Ean.**
- Hernaniko Auzo Biraren dinamizazioa eta aholkularitza.
- Oiartzungo euskalgintzaren berrantolaketa prozesurako laguntza teknikoa.
- Oiartzungo herri musika eskola diseinatzeko partaidetza prozesua eragile gakoekin.
- Urdiaingo jaietan eredu berdinzalegoa lantzeko partaidetza prozesua.
- Entitateekin lanketak:**
- Basajaun Elkarte irigarritasun ekonomikoa bermatzeko irizpideak adosteko prozesu parte-hartzailea.
- Proiektuen lanketa eta prozesu parte-hartzaileei buruzko formakuntzak **Donostiako elkarteentzat.**

- GFaren partaidetzako diru-laguntza jaso duten elkarten arteko topaketen diseinua eta dinamizazioa.
- Erronka ekosozialak:**
- ARIMA BIZI (D2030) proiektuaren abiatze-prozesurako bidelaguntza, saioen diseinu eta dinamizazioa.
- Justizia klimatikoa eta generoaren inguruko azterketa Gipuzkoan, **Mundubatekin** elkarlanean.
- Tolosako energia berriztagarrien komunitatea sortzeko parte-hartze prozesuaren dinamizazioa.
- RENOVISOR: Birgaitze energetikoan laguntzeko tresna bat sortzeko prozesuan ko-sorkuntza ikuspegia lantzea (proiektu europarra).
- Haur eta nerabeak:**
- “Auzoko Ahotsak”. **Donostiako Ekialde Barrutiko** Haurren Parte Hartze Foroaren dinamizazioa.
- Bestelako prozesuak:**
- Arantzazulabeko Ko-Sorkuntza Ekosistemarekin elkarlana: Ikuspegi sistemikoa sortzeko tresna.
- Gipuzkoako partaidetzaren ebaluaketa esperientzia lankidetzan.
- II. Hika Topaketaren saioaren diseinua eta dinamizazioa.
- Oiartzungo terraza ordenantzaren inguruko kontrastea ostalariekin.
- Farapik bultzatutako prozesuak:**
- “Topaleku biziak: Ekipamenduetako tarteko espazioak eta komunitategintza” ikerketa, Junturarekin elkarlanean.
- Bestelako lanak:**
- Urtean zehar, formakuntza eta hitzaldi anitz egin ditugu hainbat gairen inguruan: lan-eredu bizigarriak, gatazken kudeaketa...

→ GURE KABUZ SUSTATUTAKO PROIEKTUAK

Farapin sinesten dugu gu ere gizartea eraldatzeko eragile aktibo izan gaitzkeela. Hori dela eta, eskaerapeko lanak egiteaz gain, geure kabuz proiektuak sustatu ditugu ere 2025ean zehar.

Topaleku biziak: Ekipamenduetako tarteko espazioak eta komunitategintza

2024-2025 epealdian, Farapi partaidetza kooperatibak eta Juntura arkitekto taldeak “Herriko Jauregiak Gipuzkoan: komunitatea sortzeko azpiegitura komunitarioak ezaugarritzen” proiektua garatu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz diru-laguntzaren esplorazio proiektuen deialdian.

Prozesu honen asmoa **ekipamendu publikoek komunitategintza indartzeko duten ahalmena lantzea** izan da. Proiektua garatu ahala, ohartu gara ekipamendu publikoetako sarrerek, hall-ek eta pasilloek (hemendik aurrera, “tarteko espazioak”) komunitatearen ehungile bilakatzeko potentzialtasun handia dutela.


Areto eta geletara sartu aurretik, ekipamendu publikoek hainbat espazio dituzte, eta sarritan erabilera edota balio gutxi ematen zaie. Proiektu honetan, Gipuzkoako hiru ekipamendutako tarteko espazioak behatu ditugu, eta herritarren artean gertatzen diren interakzioak eta izaera komunitarioa nola lurreratzen den aztertu dugu.

Hala, ekipamenduetako tarteko espazioen ezaugarrien lehen identifikazio bat egin ahal izan dugu: zein espazio okupatzen diren, zeintzuk ez, zein erabilera ematen zaien, zer nolako herritar sektoreek baliatzen dituzten espazio horiek, nortzuk geratzen diren kanpo...

Azterketa horren emaitzak **“Topaleku biziak: Ekipamenduetako tarteko espazioak eta komunitategintza” argitalpenean** jaso ditugu.

[Eskuratu ‘Topaleku biziak’ argitalpena](#)





EZAGUTZA

Formakuntzari eta ezagutza partekatzeari garrantzi handia ematen diogu Farapin. Gizartea etengabe eraldatzen den heinean, erronka sozialak ere aldatu egiten dira, eta horiei ahalik eta egokien erantzuteko prest egotea garrantzitsua da. Horregatik, Farapin **talde-formakuntzak egiten ditugu**, taldearen ezagutzak eguneratzeko, eta banakako formakuntzak ere egiten ditugu, norberaren interes eta gaitasunen arabera.

2025. urtean, lan eskubideen inguruko talde-formakuntza egin dugu, zaintzaren eta kontziliazioaren ikuspegitik bereziki, gure lan baldintzen inguruko gogoeta sustatzeko.

Halaber, guk besteengandik ikasten dugun moduan, uste dugu guk ere badugula zer kontatu. Ezagutza sortzaile izateko bokazioa ere badugu Farapin. Hori dela eta, **hainbat hitzaldi eta ekimenetan parte hartu dugu urtean zehar**.

EZAGUTZA PARTEKATUAK

Gatazken kudeaketa parte-hartze prozesuetan

2025eko uztailean Madrilera bidaiatu genuen, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseak eta CIMAS sareak antolatutako “Metodologías participativas para políticas públicas e iniciativas comunitarias” ikastaroan tailer bat ematera.

Tailerrean parte-hartze prozesuetan sortzen diren gatazka eta tentsioen kudeaketaz aritu ginen. Izan ere, prozesu gehienek aurretik dakartzate desadostasunak edo bidean sortzen dira, eta horiek modu eraikitzailean lantzea funtsezkoa da parte-hartzeak benetako eragin eraldatzailea izan dezan.

Horretarako, Farapitik bidelagundu ditugun hainbat prozesuren adibide praktikoak partekatu genituen, eta, ondoren, ikastaroko parte-hartzaileekin ariketa praktiko bat egin genuen, ikuspegiak kontrastatu eta tresna horiek beren testuinguruetara eramateko aukerak lantzeko.



Demokraziaren aldaerak, agertokiak eta aukerak XXI. Mendean

Arantzazulabek antolatutako “Demokraziaren berrikuntza: Zein izan daiteke guretik ekarpena? Nazioarteko begirada eta kontrastea” UIK ikastaroan parte hartu genuen 2025ean, kultura demokratikoaren eta komunitatearen eraikuntzaren inguruko hausnarketak eta esperientziak partekatzeko.

Farapik, Arantzazulabeko Ko-sorkuntza Ekosistemaren izenean, **“Demokraziaren aldaerak, agertokiak eta aukerak XXI. mendean” mahai-inguruan** parte hartu zuen. Bertan, demokrazia berritzeko erronkei buruzko ikuspegiak partekatu eta tokiko erakunde, eragile eta nazioarteko esperientziekin elkarriketan aritzeko aukera izan genuen.

Bizigarritasuna eta ekonomia feminista

Ekonomia feminista gure eguneroko lanean modu praktikoan txertatzen saiatzen garen heinean, bidean izan ditugun ikaspenak beste eragile batzuekin partekatzeak aukera izan dugu 2025ean. Hainbat hitzaldi, mahai-inguru eta prestakuntza-espaziotan parte hartu dugu, besteak beste, EHUn, UEUn, Olatukoopek antolatutako ekimenetan, REAS Euskadin eta Taupa mugimenduaren espazioetan.

Topaketa horiek ez dira guretzat norabide bakarreko ariketa izan. **Gure lan-eredu bizigarriaren esperientzia partekatzeaz** gain, beste proiektu eta eragile batzuen praktikak ezagutzeko, ideiak gurutzatzeko eta ikasitakoa gurera ekartzeko aukera ere izan dira.



Gipuzkoako partaidetza prozesuak neurtzeko tresnen diseinua eta aplikazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako ekimen baten baitan, hainbat aholkularitzak elkarlanean jardun dugu partaidetza-prozesuak ebaluatzeko tresnak diseinatzeko eta aplikatzeko. Helburua izan da prozesu horien eragina neurtzeko adierazleak eta metodologia partekatu bat eraikitzea.

Tresnak diseinatu ondoren, aholkularitza bakoitzak bidelaguntzen duen partaidetza-prozesu batean jarri ditugu praktikan, haien erabilgarritasuna kontrastatzeko, hobekuntza aukerak identifikatzeko eta metodologia fintzen jarraitzeko.

Esperientzia aberasgarria izaten ari da guretzat, **partaidetza prozesuen ebaluazioaren inguruan sakontzeko ez ezik, beste aholkularitza batzuekin ezagutza partekatzeak**, ikuspegiak kontrastatzeko eta elkarrekin ikasteko aukera eman digulako.



Kirol-hastapenean genero eta LGTBIQ+ begirada txertatzearen inguruko ponentzia Gipuzkoako Batzar Nagusietan

Neska edota LGTBIQ+ haurra zinenean, nola bizi izan zenuen kirola? Askok kirolarekiko deskonexioa edota deserosotasuna bizi izan genuen, eskolan oso eredu androzentrista genuelako garai hartan. Hala, heldutan berreskuratu dugu kirola eta ariketa fisikoa egiteko grina.

2025eko maiatzaren 2lean, **Gipuzkoako Batzar Nagusietan ponentzia bat egiteko eskaera egin ziguten, Gipuzkoako kirol-hastapeneko eredua aztertzeko eta baloratzeko.** Izan ere, aurreko urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Sailarekin elkarlanean aritu ginen Farapin, Multi Kirola programan genero eta LGTBIQ+ ikuspegiak txertatzeko, prozesuaren emaitzak bideratzeko eta horiek jasotzeko.

Ikusi ponentzia osorik



JASOTAKO TALDE FORMAKUNTZAK

Zaintzaren eremuko lan eskubideei buruzko formakuntza, LAB sindikatuaren eskutik

Urte hasieran, LAB sindikatuko kideen bisita izan genuen bulegoan, **zaintzaren eremuan ditugun lan-eskubideen inguruko ezagutza eguneratzeko eta azken lege-aldaketak ezagutzeko.**

Saioa oso baliagarria izan zen guretzat. Alde batetik, gure barne-araudia eguneratzen eta hobetzen jarraitzeko tresnak eskaini zizkigun; bestetik, lan-eredu bizigarri baten alde egiten dugun apustua indartzeko aukera eman zigun. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu LAB sindikatuari haien ezagutza eta esperientzia gurekin partekatzeagatik.



KONTUAK

2024an bizi izan genuen egoera ekonomikoak arrastoa utzi zuen 2025aren hasieran ere. Horregatik, urte hasieratik neurriak hartu genituen, aurreko urteko egoerak proiektua baldintzatzen jarrai ez zezan. Ez zen erabaki erraza izan, baina beharrezkoa zela uste genuen, urtea beste modu batean hasi eta proiektua zaintzeko.


Farapin, bizigarritasuna eta bideragarritasuna elkarren eskutik doaz. Lan-baldintza duinak eta pertsonen ongizatea erdigunean jartzeko, ezinbestekoa da proiektu ekonomiko sendo eta jasangarria izatea. Horregatik, urte osoan zehar arreta berezia jarri diogu oreka hori zaintzeari.

Hurrengo orrialdeetan gure kontu ekonomikoen berri ematen dugu: baliabideak nondik etorri diren, zertara bideratu ditugun eta urteko emaitzak nola irakurtzen ditugun. Gardentasuna kooperatiba gisa dugun konpromisoetako bat denez, datuez gain, haien atzean dauden erabakiak eta hausnarketak ere partekatu nahi ditugu.



DIRU-SARRERAK

2025. urteko diru-sarrerak osotara: **469.692,15 €**

Nola finantzatzen ditugu proiektuak?




Bezero motak:



GASTUAK

2025. urteko gastuak osotara: **443.646,12 €**

Zertan inbertitu dugu?



2025eko IPDK: Amillubi

Kooperatiba izanik, gure urteko irabazien %10a IPDKra bideratzen dugu. Taldean adosten dugu zertara bideratu nahi dugun ekarpen hau, eta 2026an egindako Batzar Orokorrean, aho batez erabaki genuen 2025 urteko IPDK Amillubi ekimenari bideratzea.

Ezagutu

Soldata-taula 2025eko martxora arte:

2024ko egoera ekonomikoa ikusita, eta proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko asmoz, urtearen hasieran aldi baterako soldata-murrizketa aplikatu genuen. Langile guztiok (bazkide zein ez-bazkide) soldataren %85a kobratu genuen hasierako hilabeteetan.

Urtarriletik martxora	
Kooperatibakide diren langileak	29.673,23 €
Kooperatibakide ez diren langileak (>1 urte)	29.673,23 €
Kooperatibakide ez diren langileak (<1 urte)	29.673,23 €

Soldata-taula 2025eko apiriletik aurrera:

Abuztutik abendura	
Kooperatibakide diren langileak	34.909,68 €
Kooperatibakide ez diren langileak (>1 urte)	33.593,01 €
Kooperatibakide ez diren langileak (<1 urte)	32.251,92 €


→ EGOERA EKONOMIKOAREN GOGOETA

2025ari zuhurtziaz ekin genion. 2024ko egoera ekonomikoaren ondorioz, urteko lehen hilabeteetan soldataren %85a kobratu genuen denok, bazkide zein ez-bazkide. Ahalegin kolektiboa izan zen, eta horri esker urteari beste abiapuntu batetik heldu ahal izan genion.

Urteak berriro ere erakutsi digu zein zaurgarria izan daitekeen gure proiektua. Tamaina txikiko kooperatiba garenez, **ustekabeko edozein gorabeherak eragin handia izan dezake gure egunerokoan.** Edozein olatu txiki tsunami bihur daiteke guretzat. Horrek ez du esan nahi proiektua ahula denik; aitzitik, gogorarazten digu oreka askoren gainean eraikitzen dugula gure egunerokoa, eta oreka horiek etengabe zaindu behar ditugula.

Zorionez, urte amaieran egoera ekonomikoa onbideratzea eta urtea aurreikusitakoa baino emaitza hobekin ixtea lortu genuen. Horri esker, aparteko ordainsari bat egin genuen urtarriletik martxora bitartean aplikatutako soldata-murrizketa konpentsatzeko, eta garai hartan Farapin lanean aritu ginenon artean banatu genuen, urte hasieran denon artean egindako ahalegina aitortzeko. Modu batean edo bestean, urte hasierako erabaki zail horiek kolektiboak izan ziren bezala, urte amaierako emaitzen onurak ere kolektiboki partekatu nahi izan genituen.

Esperientzia honek, ordea, emaitza ekonomikoetatik haragoko ikasgai ugari utzi dizkigu. Lehenik eta behin, berriro ere baieztatu dugu bideragarritasun ekonomikoak eragin zuzena duela proiektuaren bizigarritasunean. Askotan bi dimentsioak bereizita ulertzeko joera badago ere, gure esperientziak erakutsi digu bata zaindu gabe nekez zaindu daitekeela bestea. **Lan-baldintza duinak eta pertsonen ongizatea bermatzeko, beharrezkoa da proiektuak ekonomikoki ere eutsi ahal izatea.**




Bestetik, barne-komunikazioaren garrantziaz ere jabetu gara. Ziurgabetasun egoeretan, informazioa partekatzeak, zalantzak mahai gainean jartzeak eta elkarrekin hitz egiteko espazioak izateak gatazkak saihesten laguntzen du, edo gutxienez gatazkak beste modu batean kudeatzeko aukera ematen du. Era berean, erabakiak talde-adostasunetik hartzeak konfiantza sendotzen du, eta erabaki zailak ere eramangarriago bihurtzen ditu.

Krisi-egoerak identifikatzeko moduaren inguruan ere hausnartu dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu egoerak modu objektiboan aztertzeak tresnak izatea, bizipen, beldur edo sentrazioetatik harago.

Eta, azkenik, esperientzia honek galdera garrantzitsu bat utzi digu mahai gainean: **zer lan-baldintza nahi ditugu guretzat? Zein dira zaindu nahi ditugun minimoak, eta zer gaude prest mugitzeko egoerak hala eskatzen duenean?** Ez dugu erantzun itxirik, baina badakigu galdera horiei elkarrekin erantzuten jarraitu beharko dugula, bizigarritasunaren eta bideragarritasunaren arteko etengabeko oreka bilatzen dugun honetan.

2024ko ondorio guztiak ez ditugu, hala ere, atzean utzi. Neurri gutxi batzuk indarrean mantentzen ditugu oraindik ere; esaterako, atsedenaldia ordu erdikoa izaten jarraitzen du, lehen genuen ordubetekoaren orde. Horrek ere gogorarazten digu krisiek arrastoa uzten dutela, eta berreskuratzeak denbora behar duela.



HORNITZAILEAK

Urteak daramatzagu koherentzia ariketa egiten eta pixkanaka gure hornitzaileak aldatzen.

Hauek dira, besteak beste, aldaketak egiteko erabili ditugun irizpideetako batzuk: ekonomia sozial eraldatzaileko (ESE) enpresa izatea, tokikoa izatea, finantza etikoak bultzatzea edota zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

Ondorengo taulan orain arte egin dugun trantsizioa islatu dugu:

	LEHEN	ORAIN
Ostatatzea eta e-posta	Telefónica / Acens	IZT Koop ●●●
Inprimagailu zerbitzuak	RICOH	MAKELSA ●●
Telefonoa	Vodafone	Osinaga ●●
Janari erosketak	Eroski	Labore ●●●
Mailegua	Santander	Koop57 ●●●●
Bestelako erosketak	Supermerkatua	Tokiko dendak ●
Elektrizitatea	Iberdrola	Goiener ●●●
Aseguru etxea	Catalana Occidente	Previsora General ●●
Garbiketa zerbitzuak	Easo Limpiezas ●	Maitelan ●●●
Mutua	Prevencilan / Preving	Segurlan ●●

● ESE ● Finantza etikoak ● Tokikoa ● Euskaraz

Kriterio horiek betetzetik haratago, eragiteko jarrera proaktiboa dugu Farapin; kontua ez da soilik laukiak markatzea. Urtetik urtera, elkarrekin erantzunkidetasun sozialaren balioak sustatzeko erronkan gabiltza.

Aldi berean, hornitzaileekin harremantzeko moduari ere garrantzia ematen diogu. Bezeroekin egiten dugun bezalaxe, gertutasunetik lan egitea gustuko dugu, bezero-hornitzaile harreman tradizionalak irauliz.

Bide luzea egin dugu, baina oraindik ere eutsi beharreko erronkak ditugu.







WEBGUNE BERRIA ETA .EUS DOMAINUA

2025ean gure webgunea berritu dugu, lametzaren laguntza teknikoarekin.

Helburua argia izan da: Farapi zer den eta zer egiten dugun hobeto azaltzea. Badakigu gure lana ez dela beti erraza hitz gutxitan azaltzen, eta, horregatik, gure zerbitzuak modu argiagoan aurkezteko ahalegina egin dugu. Horrez gain, bizigarritasunari eskainitako atal berri bat ere gehitu dugu, gure proiektua ulertzeko funtsezko ardatzetako bat delako. Oro har, webgune modernoagoa, argiagoa eta mugikorretik nabigatzeko errazagoa sortu nahi izan dugu.

Aldi berean, aspalditik genuen beste erronka bati ere heldu diogu: **.eus domeinura igaro gara**. Farapi proiektu euskalduna da, euskaraz lan egiten dugu eta gure jarduna euskaratik eta euskaraz eraikitzen dugu. Horregatik, aldaketa hau urrats naturala eta beharrezkoa iruditzen zitzaigun. Hemendik aurrera, **www.farapi.eus** helbidean aurkituko gaituzu, eta gure posta elektronikoko helbideak ere eguneratu ditugu.

Gure webgune berria: **www.farapi.eus**



ZERBITZARI BERRIA

2025a urte garrantzitsua izan da gure azpiegitura teknologikoarentzat. Farapin gure zerbitzari propioa dugu, eta horri esker gure proiektuetako datuak gure esku daude, kanpoko plataformen menpe egon gabe. Datuen burujabetzaren aldeko apustuarekin bat eginez, **aurten zerbitzaria berritu dugu, IZT kooperatibaren bidelaguntzari esker**.

Aspalditik genuen egitekoen zerrendan zegoen erronka hau. Horrelako aldaketa teknologikoek denbora, antolaketa eta arreta eskatzen dituzte, eta eguneroko lanean ere badute eragina; horregatik, askotan atzeratzen joan gara. Aurten, ordea, hainbat aurrerapauso ematea erabaki dugu, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Teknologia ere gure proiektuaren parte da, eta hura gure balioekin lerrokatzea beste urrats bat izan da burujabetza eta iraunkortasuna indartzeko bidean.




SAREAK

Saretzea ezinbestekoa dela uste dugu, inguru sozialarekin kohesioa eta konexioa izateko.


Gizartea eraldatu nahi badugu, ezin dugu bakarrik egin. Horregatik, beste elkarte, enpresa eta eragileekin elkarlanean aritzen gara eta partekatze-espazioak sortzearen alde egiten dugu.

Farapitarrok modu eta leku ezberdinetatik parte hartzen dugu espazio kolektibo bakoitzean. Batzuetan, sortzaile edota eragile aktibo gara. Besteetan, proiektu kooperatiboen bazkide, babesle eta bezero gara, ekonomia sozial eraldatzailean eta elkar-laguntzan sinesten dugulako.

ZEIN SAREETAN GAUDE?



ERRONKAK



2025ak berriro ere erakutsi digu proiektu bizi bat garela.

Garaiak, pertsonak eta testuingurua etengabe aldatzen dira, eta horrek Farapiko proiektua ere etengabe berrikustera eta egokitzera eramaten gaitu. Horregatik, beti dugun erronka nagusietako bat da aldaketa horien guztien erdian ere argi izatea norantz joan nahi dugun, gure balioei eta egiteko moduari eutsiz.

Urte honek ere agerian utzi digu lan-taldearen joan-etorriek eragin zuzena dutela proiektuan. Horregatik, **gure barne-antolakuntzaren oinarriak zaintzen jarraitu** nahi dugu: lan-taldeak, lan-lerroak eta ezagutzaren partekatzea sendotuz, baina **baita talde-kohesioa ere**. Elkarrekin lan egiteaz gain, elkarrekin egiteko espazioak ere zaindu nahi ditugu, badakigulako harremanek ere sostengatzen dutela proiektua.

Teknologiaren alorrean ere erronka berriak ditugu aurrean. **Adimen artifizialaren erabilera** gero eta zabalduago dagoen honetan, taldean hausnartzeko tarte hartu nahi dugu, Farapin zer leku izan dezakeen aztertzeko. Ez dugu soilik alor teknologikoaz eztabaidatu nahi; haren erabilerak dakartzan ondorio etiko, sozial eta politikoak ere mahai gainean jarri nahi ditugu.

Azkenik, geure buruari ere erronka txiki baina garrantzitsu bat jarri nahi diogu: gelditzea. Askotan hurrengo erronkei begira bizi gara, baina uste dugu merezi duela egindako bidea aitortzea eta ospatzea ere. Hori dela eta, urte hasieran egiten dugun hausnarketa saioaz gain, urte erdialdean beste bat ere egiteko erronkari heldu diogu. Etorkizunari begira jarraituko dugu, baina orainaldia bizitzea eta zaintzea ahaztu gabe.



www.farapi.eus

